

Gender A B C

Bigarren Hezkuntzarako
heziketa-programa



Talde-kohesioa

GenderABC (ABC Generoa) proiektuaren koordinatzailea da



eta abian jarri dutenak dira



Argitalpen hau Europar Batasuneko Eskubideak, Berdintasuna eta Herritartasuna Programak (2014-2020) finantzatu du.



Bigarren Hezkuntzarako
heziketa-programa

Talde-kohesioa

Heziketa-modulu hau **AIDOS** elkarteak landu dute GenderABC proiektuaren barruan.

Aurkibidea

Aurkibidea	2
I - atala: Sarrera	3
1. Xedea	3
2. Gai nagusiak	3
3. Gako-hitzak	3
4. Ikasketa-xedeak	3
5. Jardueren zerrenda	4
II - atala: Jarduerak	5
1. jarduera: <i>Zer da EGM</i>	5
• Testuingurua	5
• Gidoia	5
• Jarraibideak	6
2. jarduera: <i>Aminataren dilema</i>	7
• Testuingurua	7
• Gidoia	7
• Jarraibideak	8
3. jarduera: <i>Oporrak arriskuan</i>	9
• Testuingurua	9
• Gidoia	9
• Jarraibideak	10
Saioaren egitura	11
Moduluen zerrenda	13

I - atala

SARRERA

1. Xedea

Hauek dira modulu honen xedeak: taldearen giroa aztertzea; partekatutako arauak ezartzea proiektua burutzeko eta parte-hartzaileei laguntzea elkarrekin lan egiten, arretaz entzuten eta argi komunikatzen. Jarduerak aukera ematen diete parte-hartzaileei arreta haien zein bere ikaskideen gauza positiboetan jartzeko, hobeto ezagutzeko elkar eta konfiantza eraikitzeke talde gisa. Gomendatzen da modulu hau heziketa-programaren hasieran ematea.

2. Gai nagusiak

- Harremanak ikasgelan edo taldean
- Lankidetzeta eta elkarlana
- Talde-koherioa, adostutako arau komunak, konfiantza eta komunitatea
- Enpatia eta zirraren adierazpena
- Komunikatzeko, entzuteko eta arazoak konpontzeko gaitasunak

3. Gako-hitzak

Entzute aktiboa • Enpatia • Identitatea
Pentsamendu kritikoa • Talde-koherioa • Konfiantza

4. Ikasketa-xedeak

- Parte-hartzaileek bere burua talde gisa ikustea bultzatzea, bere bereizgarri, baliabide eta arazo zehatzekin.
- Enpatian oinarritutako jokabideak sustatzea.
- Norberarenganako kontzientzia, entzute aktiboa eta komunikazio eraginkorra indartzea.
- Arau komunak ezartzea jarduerak burutzeko.
- Pentsamendu kritikoa eta ikuspegi desberdinekiko errespetua sustatzea.

5. Jardueren zerrenda

	 Jardueraren izena	 Iraupena guztira	 Materialak	 Garrantzia ¹
1	Konfiantza-akordioa	20 minutu	- Boligrafoak - Horma-irudia	☆☆☆
2	Elkarrizketen jokoa	40 minutu	- Boligrafoak - Horma-irudia	☆☆☆
3	Arbola	35 minutu	- Koloretako txartelak - Errotuladore iraunkorrak - Artaziak	☆☆☆

¹ Jarduerak izarrekin sailkatzen dira (izar bat eta hiru izar bitarteko sailkapenarekin) garrantziaren arabera; adibidez, "oso gomendagarria" den jarduera bat hiru izarrekin sailkatzen da.

II - atala

JARDUERAK

I. jarduera Konfiantza-akordioa ★★★



Jardueraren iraupena guztira
20 minutu
Prestatzea: 5
Egitea: 10
Segimendua: 5




Materialak
☐ Boligrafoak
☐ Horma-irudia

→ TESTUINGURUA

Jarduera honen xedea da jarduerak gauzatzen diren bitarteko funtzionamendurako arau komunak jasoko **dituen talde-kontratu bat egitea**.

Tailer-formatua eta haren ezaugarriak aurkeztuko ditugu eta, horrez gain, egunero irakasleekin dituzten eskolekiko aldea azalduko dute. Parte-hartzaileei esango zaie lan egiteko **beren esperientziak eta zirrarak partekatu behar dituztela**.

→ GIDOIA



Havek dira akordioan agertu beharko liratekeen arau garrantzitsuetako batzuk:

- norberaren zein besteen pribatutasuna errespetatu behar da eta ezin zaie besteei kontatu kide batek konfiantza-zirkuluan esaten duena;
- ezin dira parte-hartzaileak inoiz behartu deseroso sentiarazten dituen zerbait esatera edo egitera;
- beti entzun behar dute besteek hitz egiten dutenean;
- ez dituzte besteak epaitu behar;
- guztien desberdintasunak eta iritzia errespetatu behar dituzte;
- tailer bakoitzaren ostean, ondo kokatu behar dituzte aulkiak eta mahaia.

→ JARRAIBIDEAK

Parte-hartzaileek eta hezitzaileek ituna sinatuko dute. Horma-irudia jarriko dute hezkuntza-programa garatzen den gelan.

Gisa honetako galderak egingo dizkiegu parte-hartzaileei:



- Zeintzuk dira arau hauen ondorioak taldean?
- Zer ekartzen dute?
- Arauak ezarrita daudelarik, zer da orain errazagoa? Zer da zailagoa?

Erantzunak kontuan hartuz, azpimarratuko dugu zergatik den hain garrantzitsua akordio batera heltzea eta denok batera arau batzuk ezartzea, hain zuzen ere, pribatutasuna mantentzeko eta zirkuluaren barruan elkarrekiko errespetua ziurtatzeko.

2. jarduera Elkarriketen jokia ★★



Jardueraren iraupena guztira
40 minutu
Prestatzea: 5
Egitea: 20
Segimendua: 15



Materialak
□ Boligrafoak
□ Horma-irudia

→ TESTUINGURUA

Jardueraren xedea da **taldearekiko lotura indartzea eta entzuteko gaitasunak hobetzea, zehazki, besteen iritzia aztertzea eta onartzera animatuz.**

Jarduera rol-joko bat bezala aurkeztuko dugu; horretan, kazetariak eta elkarriketatutako parte-hartzaileak txandakatuko dira batzuek besteei buruzko datuak eta informazioa bilduz. Parte-hartzaileei kidearen erantzunak arretaz entzuteko eskatuko zaie. Elkarriketa bakoitzean, parte-hartzaileek elkarriketatutako kidearen edo kideen erantzunak bereganatu beharko dituzte.

Elkarriketak **3 minutu** inguru iraungo du parte-hartzaile bakoitzeko; galderak txandaka egingo dira.

→ GIDOIA

Hasieran, zehaztuko dugu parte hartzea ez dela derrigorrezkoa: parte-hartzaileek ez dute zertan erantzun eroso sentiarazten ez dituen galdera bat.



Hiruzpalau galdera aukeratuko ditugu elkarriketetarako.



Parte-hartzaileak bikoteka jarriko dira, kiderik hurbilenak edo lagunik onenak elkarrekin jartzea saihestuz.

Berriki sortutako taldeentzat iradokitako galderak:

- Zeintzuk dira eskolan izaten dituzun sentimendurik ohikoenak?
- Zer gustatzen zaizu egitea zure denbora librean?
- Zeintzuk dira zure zirrararik ohikoenak?
- Zer da bizitzan gehien ikaratzten zaituena?
- Zure lagun minari buruz hitz egin.
- Animalia batekin bizi izan duzun esperientziarik politena.

Elkarrekin gutxienez urtebete igaro duten taldeentzako galderak:

- Zer da munduan gehien gorroto duzuna?
- Zein da zure ezaugarriarik onena?
- Zein da zure gabeziarik handiena?
- Zein izan da gehien hunkitu zaituen liburua edo abestia? Zeri buruzkoa da?
- Nola ikusten duzu zeure burua etorkizunean, hau da, heldua izango zarenean (lana, familia, eta abar)?
- Kontatu zera egin zenuenekoa: inoizko gezurrik handiena esan zenuenekoa, adibidez.

→ JARRAIBIDEAK

Berriz ere talde osoa bilduta dagoelarik, parte-hartzaileei lagunduko diegu jakiten nola sentitu diren elkarrizketatutako kidearen ikuspegia adieraztean.

Galdera hauek egin ditzakegu:

- Zein izan da entzutearen parterik errazena?
- Zein izan da entzutearen parterik zailena?
- Zein izan da elkarrizketatutako kidearen edo kideen erantzunak bereganatzearen parterik errazena? Eta zailena?
- Jarduera honetan, zer izan da gehien gustatu zaizuna?
- Jarduera honetan, zer izan da gutxien gustatu zaizuna?



3. jarduera Arbola ★★



Jardueraren iraupena guztira

35 minutu
Prestatzea: 10
Egitea: 15
Segimendua: 10



Materialak

- ☐ Koloretako txartelak
- ☐ Errotuladore iraunkorrak
- ☐ Artaziak

→ TESTUINGURUA

Jardueraren xedea da **arreta banakako zein taldekako identitatearen antzeko alderdietan zein alderdi desberdinetan jartzea.**


Jarduerak aurkezteko, brainstorming labur bat egingo da identitateari eta horren aldagaiei buruz (izaera pertsonala, interesak eta zaletasunak, familiaren historia, generoa, jaioterria, hizkuntza eta abar).

Kontuan hartu behar da jarduera hau bereziki egokia dela jatorriz migratzaile diren kideak dauzkaten taldeentzat edo kideen artean, besteak beste, iritziei, egoera sozialari eta ekonomikoari, familiari eta sexu-orientazioari dagokienez alde nabarmenak dauden taldeentzat.

→ GIDOIA



Parte-hartzaileei eskatuko diegu zuhaitz bat marrazteko. Hostotzak eta bere ezaugarriek parte-hartzailearen izaera islatu beharko lukete.



Parte-hartzaileei eskatuko diegu beren izen-abizenak enborrean idazteko; horrez gain, beren goitizenak edo gustatuko litzaizkiekeen izenak idatz ditzakete. Sustraiak parte-hartzailearentzat garrantzitsuak diren gauzak adieraziko dituzte: jatorriak, familia edo identitate pertsonala eraikitzen duen edozein esperientzia edo ezaugarri. Parte-hartzaileek zuhaitzean idazteko alderdirik garrantzitsuenak aukeratuko dituzte.



15 minutu emango dizkiegu banaka lan egin dezaten eta, marrazkiak egindakoa, horma-irudi bat egin dezakete zuhaitz guztiekin eta horren inguruan eztabaidatu.



Parte-hartzaileek horma batean eskegiko dute horma-irudia.

→ JARRAIBIDEAK

Jardueraren eragina iker dezakegu galdera hauek eginez:



- Zer ikasi duzu zure buruari buruz? Zein alderdi edo gaitasun berri?
- Zein izan da gehien harritu zaituena? Arbolaren zein alderdi ez zenituen espero?
- Zergatik agertu dira alderdi berri horiek?
- Nola sentitzen zara azaldutako gaiei dagokienez?
- Zeintzuk dira emaitzak eta ondorioak? Norbanako zein talde gisa?

Parte-hartzaileei lagundu ahal diezaiekegu talde baten konplexutasunari buruz hausnartzen, taldeak norbanakoen ezaugarrietatik harago doazen ezaugarriak baititu; baita taldearekiko iritzi ona eta jarrera positiboa sustatzen ere.

Saioaren egitura

Moduluaren izena: Talde-kohesioa

Ikastetxea: _____

Irakaslea, arduraduna: _____

Ikasgela (Ikasturtea eta data): _____

Parte-hartzaileen kopurua: _____

Data: ____/____/____ **Iraupena:** _____

Aukeratutako jarduerak: _____

Materialak (berrikusiak): ☐ bai ☐ ez

OHARRAK:

This image shows a blank sheet of white paper with horizontal ruling lines. The lines are evenly spaced and run across the width of the page. There are no margins, text, or other markings on the paper.

OHARRAK:

[illegible]

Gender ABC projektua

MODULUEN ZERREDA

Modulu
Bigarren
Hezkuntzarako
heziketa

- 01 Ziber-indarkeria
- 02 Ezkontza goiztiarra eta behartua
- 03 Ahalduntzea eta komunikazio-gaitasunak
- 04 Emakumeen genitalen mutilazioa
- 05 Genero-indarkeria
- 06 Generoko gizarte-arauak eta estereotipoak
- 07 **Talde-kohesioa**
- 08 Giza eskubideak eta haurren eskubideak
- 09 Bikote barruko indarkeria
- 10 Sexu-orientazioa eta genero-identitatea
- 11 Sexu- eta ugalketa-osasuna eta eskubideak
- 12 Sexu-indarkeria

Modulu
Lehen
Hezkuntzarako
heziketa

- 01 Gorputzaren segurtasuna / Emakumeen genitalen mutilazioa
- 02 Ahalduntzea eta komunikazio-gaitasunak
- 03 Generoan oinarritutako indarkeria
- 04 Generoaren arau sozialak eta estereotipoak
- 05 Giza eskubideak eta haurren eskubideak
- 06 Sexu-orientazioa eta genero-identitatea

Dokumentu
laguntzaileak

- 01 Arriskuen ebaluazioa
- 02 Metodologia orokorra
- 03 Glosario orokorra

Gender A B C

Ek egindako proiektua:



End FGM
EUROPEAN NETWORK



ASSOCIAÇÃO PARA O PLANEAMENTO DA FAMÍLIA



Europar Batasunak
kofinantzatutako proiektua